

XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA

(2022ko urtarrilaren 29tik martxoaren 26ra)

Partidak 90 minutukoak dira, gehi 30 segundo gehiago jokaldiko. Iaz denboraldi berezia izan zen koronabirusaren pandemiagatik. Aurten berregituratu da Euskal Liga. Ohorezko Mailaz gain, Lehenengo Maila izanen dugu, baina bi multzotan banatuta.

OHOREZKO MAILA

Azkeneko bi taldeak Lehenengo Mailara jaitsiko dira.

LEHENENGO TXANDAN ATZERATUTAKO PARTIDA

Abadiño (Bizkaia) – Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa): 2-2.

Alain Prieto Aranguren (2.256) (Abadiño) – Javier Lizuain Toni (2.010) (Donibane Kirol Elkartea): 1-0.

Mariano De Pablos Fernandez (1.859) (Donibane Kirol Elkartea) – Paulo Dunaiturria Uribe Zubia (1.329) (Abadiño): 1-0.

Jon Fernandez De Arriba (elorik gabe) – Aritz Egozcue Sghir (1.296): 1-0.

Saul Antoñanzas De la Merced (elorik gabe) (Donibane Kirol Elkartea) – Adrian Agudo Inchaurre (elorik gabe) (Abadiño): 1-0.

2022-02-26: BOSGARREN TXANDA

Abadiño (Bizkaia) (3'5) – Easo (Donostia, Gipuzkoa) (0): 4-0 (jokatu gabe).

Gros A (Donostia, Gipuzkoa) (14) – San Viator (Gasteiz, Araba) (8'5): 3'5-0'5.

Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (10'5) – Zornotza (Bizkaia) (9'5): 2'5-1'5.

Orvina (Iruñea, Nafarroa) (12) – **Martintxo (Gasteiz, Araba) (9'5)**: 1-3.

Gustavo Jimenez Martin (2.082) (Orvina) – Aritz Morante Rafael (2.197) (Martintxo): 1-0.

Rodrigo De las Heras Figueroa (2.020) (Martintxo) – Javier Cinza Lopez (1.971) (Orvina): 1-0.

Esteban Garraza Obaldia (1.917) (Orvina) – **Hugo Pelegrin Gomez (2.027) (Martintxo)**: 0-1.

Alberto Garcia San Martin (1.899) (Martintxo) – Adolfo Ruiz Anton (1.521) (Orvina): 1-0.

Calasanz (Gasteiz, Araba) (0) – **Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) (4'5)**: 0-4 (jokatu gabe).

SAILKAPENA

- 1) **Gros A (Donostia, Gipuzkoa) – 17'5 puntu.**
- 2) **Conteneo (Bilbo, Bizkaia) – 13 puntu.**
- 3) **Orvina (Iruñea, Nafarroa) – 13 puntu.**
- 4) Martintxo (Gasteiz, Araba) – 12'5 puntu.
- 5) Zornotza (Bizkaia) – 11 puntu.
- 6) Donibane Kirol Elkarte (Iruñea, Nafarroa) – 10'5 puntu.
- 7) Abadiño (Bizkaia) – 9'5 puntu.
- 8) San Viator (Gasteiz, Araba) – 9 puntu.
- 9) **Calasanz (Gasteiz, Araba) – 0 puntu.**
- 10) **Easo (Donostia, Gipuzkoa) – 0 puntu.**

ORVINAREN ATZERAPAUSSOA

Porrot garrantzitsua jaso zuen Orvinak eta bigarren postutik aldendu da. Martintxok 2.000 inguruko jokalariai ekarri zituen eta Orvinak ez zuen bere talderik onena atera. Ondorioa: 1-3 Martintxoren alde.

Gustavo Jimenez berriz taulan ikusteko aukera izan zen. Gainera, Orvinaren puntua lortu zuen, lehenengo mahaian Aritz Moranteren aurrean. Javier Cinza, Esteban Garraza eta Adolfo Ruiz Anton ez ziren faborito euren partidetan eta halakoxea izan zen emaitza: Hirurek galdu zuten.

Donibanek 0-4 irabazi zion Calasanz, jokatu gabe. Abadiñok ere berdin, 4-0 Easori jokatu gabe. Larunbata aprobetxatu zuten atzeratutako partida jokatzeko: Abadiño – Donibane, lehenengo txandakoa. 2-2 izan zen emaitza. Abadiñok arazoak ditu talde lehiakorra osatzeko. Donibanek orain arte arazo horiek ez zituen erakutsiak, baina neurketa honetara elo gutxiko edo elorik gabeko jendea jarri behar izan zuen. Etxean jokatura, harrigarriagoa izan zen. Ondorioa: Gabeziek baldintzatuta, baina gabezia horietan bi taldeak, berdindu egin zuten. Mariano De Pablosek bere lehenengo puntua eman zion Donibaneri, taldera batu zenetik. Javier Lizuainek galdu zuen esperientzia handiko Alain Prietoren aurka. Donibaneko Aritz Egozcuek galdu zuen hirugarren mahaian eta elorik gabeko Saul Antoñanzasek berdinketarako puntua eman zion Donibaneri laugarren mahaian. Bi taldeak sailkapeneko beheko aldean dabilta.

2022-03-05: SEIGARREN TXANDA

Easo (Donostia, Gipuzkoa) (0) – Donibane Kirol Elkarte (Iruñea, Nafarroa) (10'5).

Martintxo (Gasteiz, Araba) (12'5) – Calasanz (Gasteiz, Araba) (0).

Zornotza (Bizkaia) (11) – Orvina (Iruñea, Nafarroa) (13).

San Viator (Gasteiz, Araba) (9) – Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (13).

Abadiño (Bizkaia) (9'5) – **Gros A (Donostia, Gipuzkoa) (17'5).**

ZORNOTZAN ALTXATU BEHARKO DU BURUA ORVINAK

Larunbateko porrotaren ondoren burua altxatu behar du Ovinak. Zornotzan jokatu du, podiumerako garrantzitsua den lehia batean. Aterako dituen jokalriek baldintzatuko dute emaitza. Oraindik dauka aukera hobereenen artean amaitzeko, baina astero ibili beharko du fin horretarako.

Donibanek 0-4 irabaziko du, jokatu gabe. Sailkapena hobetuko du eta beste emaitzek erakutsiko dute nola dagoen goiko postuei begira.

Informazio gehiago: "<http://chess-results.com/tnr608396.aspx?lan=2&art=3&rd=1&turdet=YES>" webgunean.

LEHENENGO MAILA

Multzo bakoitzeko lehenengo sailkatuak Ohorezko Mailara igoko dira. Multzo bakoitzeko azkeneko hirurak zuzenean jaitsiko dira lurralde txapelketetara. Multzo bakoitzeko beste bi talde ez jaisteko Ligaxka jokatuko dute eta Ligaxka horretatik talde bat jaitsiko da lurralde txapelketetara.

LEHENENGO MAILAKO B MULTZOA

2022-02-26: BOSGARREN TXANDA

Zugzwang (Urnieta, Gipuzkoa) (8'5) – Mikel Gurea (Burlata, Nafarroa) (9): 4-0.

Luis Angel Ortega Fuentes (2.208) (Zugzwang) – Daniel Pinto Holguin (2.211) (Mikel Gurea): 1-0.

Aritz Mancha Otano (1.979) (Mikel Gurea) – **Josu Aguirre Canflanca (2.159) (Zugzwang):** 0-1.

Felix Manso Marquez (2.048) (Zugzwang) – Angel Vilchez Gonzalez (1.885) (Mikel Gurea): 1-0.

Daniel Aguinaga Garijo (1.446) (Mikel Gurea) – **Javier Corral Sierra (2.020) (Zugzwang):** 0-1.

Marlaxka (Hondarribia, Gipuzkoa) (8'5) – Zarautz (Gipuzkoa) (3'5): 3-1.

Gros B (Donostia, Gipuzkoa) (5'5) – **Alfil (Beasain, Gipuzkoa) (3):** 1'5-2'5.

Atsedena (0): **Oberena (Iruñea, Nafarroa) (10).**

SAILKAPENA

- 1) **Zugzwang (Urnieta, Gipuzkoa) – 12'5 puntu.**
- 2) **Marlaxka (Hondarribia, Gipuzkoa) – 11'5 puntu.**
- 3) **Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 10 puntu.**
- 4) **Mikel Gurea (Burlata, Nafarroa) – 9 puntu.**
- 5) **Gros B (Donostia, Gipuzkoa) – 7 puntu.**
- 6) **Alfil (Beasain, Gipuzkoa) – 5'5 puntu.**
- 7) **Zarautz (Gipuzkoa) – 4'5 puntu.**

MIKEL GUREAK ZAPLASTEKO JASO ZUEN URNIETAN

Talde nafarren paseoa zirudien multzo hau, baina errealitatearekin topo egiteko balio izan du txanda honek. Taldea zertxobait ahultzea nahikoa izan da porrot handia jasotzeko. Daniel Holguin, Aritz Mancha eta Angel Vilchez borokatze moduan zeuden euren partidetan, baina hirurek galdu zuten. Daniel Aguinagak aukera gutxiago zuen eta halaxe gertatu zen: Galdu egin zuen. 4-0ko emaitza honek asko baldintzatuko du Mikel Gurearen ibilbidea txapelketa honetan.

Oberenak atsedena hartu zuen eta hirugarren postura igaro zen. Hala ere, oraindik badu igotzeko aukera.

2022-03-05: SEIGARREN TXANDA

Zarautz (Gipuzkoa) (4'5) – Gros B (Donostia, Gipuzkoa) (7).
Mikel Gurea (Burlata, Nafarroa) (9) – Marlaxka (Hondarribia, Gipuzkoa) (11'5).
Oberena (Iruñea, Nafarroa) (10) – **Zugzwang (Urnieta, Gipuzkoa) (12'5)**.

Atsedena (0): Alfil (Beasain, Gipuzkoa) (5'5).

NEURKETA OSO INTERESGARRIAK

Oso interesgarria dago multzo hau. Oberena – Zugzwang lehia ikusmin handikoa da. Berdinketa nahikoa izan daiteke Oberenarentzat. Garaipena, urrezkoa.

Zugzwang-ek, ordea, hiru puntu behar ditu gutxienez lehenengo postua lortzeko aukeraren bat gorde nahi badu, hurrengo txandan atsedena hartuko baitu.

Mikel Gurea – Marlaxka norgehiagoka ere oso interesgarria da. Marlaxka ongi kokatu da sailkapenean. Mikel Gureak zaplasteko latza jaso du, baina ez dago guztiz jokoz kanpo. Oso estu jar daiteke sailkapena.

Informazio gehiago: “<http://chess-results.com/tnr608395.aspx?lan=2&art=3&rd=1>” webgunean.

2022-02-26.

Iturria: “Ajedrezvasco.com” webgunea.